



**2022KO APIRILAREN 25EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko apirilaren hogeita bostean, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaraturako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkeztu da 2022ko apirilaren 4an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2022ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 17 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA HAMABI MILA LAUREHUN ETA HOGEITA SEI euro ETA BERROGEITA BEDERATZI zentimo (32.426,49 €)takoa onartzea erabaki da.

III.- MIKELARGO BERRURBANIZAZIOAREN LIKIDAZIOA DEN 3. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Mikelargo berrurbanizazio lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoak eta Estibaliz Igartua arkitekto teknikoak lan hauen likidazioa den 3. obra egiaztagiria egin dute. Hirugarren obra egiaztagiri hau, LAUROGEITA BOST MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAHIRU euro ETA BEDERATZI zentimokoa (85.793,09 €) da, BEZ barne.

Lanak Sasoi Eraikuntzak S.L. enpresak burutu ditu.

Gaia aztertu ondoren, tokiko gobernu batzarrak, aho batez, lanen likidazio den obra egiaztagiri hau onartu egin du.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 16-11-04 zk.dun esp.: martxoaren 14tik aurrera etxeko laguntza zerbitzua handitzea asteen 7,5 ordutik 12,5 ordura, onuradunak laguntza gehiago behar duelako. Erabil-tzailearen ekarpena zerbitzu kostuaren %35ekoa izango da.

- 19-11-09 zk.dun esp.: martxoaren 16tik aurrera etxeko laguntza zerbitzua handitzea astean 10 orduetik 15 ordura, onuradunek laguntza gehiago behar dutelako. Erabiltzaileen ekarpena aldatu egingo da zerbitzu kostuaren %2tik %15era, elkarbizitza unitatean aldaketak egon direlako.
- 21-11-03 zk.dun esp.: zerbitzuan baja ematea 2022ko otsailaren 3tik aurrera, onuraduna epe luzerako egonaldi batean dagoelako.
- 22-11-03 zk.dun esp.: zerbitzuan alta ematea, martxoaren 25etik aurrera, astelehentik ostiralera egunero 2.5 ordu eta larunbatetan 2 ordu. Laguntza pertsonala eta etxeko garbiketarako laguntza emango zaio. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %2 izango da.
- 22-11-04 zk.dun esp.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea, apirilaren 26tik aurrera, astean 2 ordu etxeko garbiketarako laguntzeko. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %100 izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 14-01-002 zk.dun esp.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 88,80 €ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 240,00 €ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Emandakoa eskatutakoaren %96 da.
- 19-01-009 zk.dun esp.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 €ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Emandakoa eskatutakoaren 100% da.
- 21-01-011 zk.dun esp.: oinarrizko premietarako 600,00 €ko dirulaguntza ematea apirilean. Emandakoa eskatutakoaren %100 da.
- 22-01-002 zk.dun esp.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako eta alokairurako laguntza ez ematea, familiako diru sarreraren muga gainditzeagatik.
- 22-01-003 zk.dun esp.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 76,78 €ko dirulaguntza eta alokairu gastuetarako hilean 207,50 €ko dirulaguntza ematea apiriletik irailera. Emandakoa eskatutakoaren %83 da.
- 22-01-004 zk.dun esp.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 €ko dirulaguntza ematea eta alokairu gastuetarako hilean 245,00 €ko dirulaguntza ematea, bi kasuetan apiriletik abendura. Emandakoa eskatutakoaren %100 da.

Oinarrizko premietarako 1.260,00 €ko dirulaguntza ematea apirilean. Emandakoa eskatutakoaren %100 da.

Zorpetze kontzeptuan 2.940,00 €ko dirulaguntza ematea. Emandakoa eskatutakoaren %100 da.

- 22-01-005 zk.dun esp.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 87,88 €ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Emandakoa eskatutakoaren %95 da.





LAZKAOKO UDALA

- 22-01-006 zk.dun esp.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 89,73 €ko dirulaguntza ematea urtariletik abendura. Emandakoa eskatutakoaren %97 da.
- 22-01-007 zk.dun esp.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 89,73 €ko dirulaguntza ematea urtariletik abendura. Emandakoa eskatutakoaren %97 da.

Udal zerga eta tasak ordaintzen laguntzeko dirulaguntza.-

Udal zerga eta tasak ordaintzeko laguntzak emateko aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren, bere espedientean dauden 30 zergadunen eta bakoitzari dagokion zenbatekoaren arabera, guztira 10.002,53 €ko dirulaguntza ematea.

Gureak lantegira joateko garraiorako dirulaguntza.-

- 22-17-01 zk.dun esp.: hilean 40,70 € ematea, urte guztiak, abuztua izan ezik.
- 22-17-02 zk.dun esp.: hilean 40,70 € ematea, urte guztiak, abuztua izan ezik.

Gizakia helburura joateko garraiorako dirulaguntza.-

- 20-14-01 zk.dun esp.: hilean 88,80€ izatetik, hilean 30,48 € izatera pasatzea martxotik aurrera, Hernanira egiten dituen bidaien zenbatekoa jaitsi delako.

V.- JARDUERA EKONOMIKOA ARLOKO MERKATARIEN BONOEN KANPAINA.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2022ko udaberriko plangintzaren barnean erosketa bonoen kanpaina antolatzen proposamena egin du Jarduera Ekonomikoko batzordeak. Proposamenari erantsitako kanpainaren oinarrien ezaugarri nagusienak ondorengoak dira:

- Epea: maiatzaren 6tik ekainaren 24ra.
- Kopurua: 2.000 bono jarriko dira salgai, 30 eurotan erosi eta 40 euroko erosketa ahalmena emango dute (10 euro hauek Udalaren diru laguntza izango da).
- Merkatariek bonoak jasoko dituzte beraien salmentetan eta ondoren Udalera ekarriko dituzte Udalak dagokien ordainketa egiteko.
- Gastua: 20.000 €, aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik ordainduko da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, merkataritzaren sustapenerako 2022ko udaberriko bonoen kanpaina hau onartzea erabaki du.

VI.- LANDA LURRA ARLOKO BASERRITAR EKOIZLEEN BONOEN KANPAINA.-

Lazkaoko merkataritza eta baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2022ko plangintzaren barnean baserritar ekoizleen erosketa bonoen kanpaina antolatzen proposamena egin du Landalurreko batzordeak. Proposamenari erantsitako kanpainaren oinarrien ezaugarri nagusienak ondorengoak dira:



- Epea: maiatzaren 6tik azaroaren 30era.
- Kopurua: 200 bono jarriko dira salgai, 20 eurotan erosi eta 35 euroko erosketa ahalmena emango dute (15 euro hauek Udalaren diru laguntza izango da).
- Ekoizleek bonoak jasoko dituzte beraien salmentetan eta ondoren Udalera ekarriko dituzte Udalak dagokien ordainketa egiteko.
- Gastua: 3000 €, aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik ordainduko da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez merkataritza eta base-ritar ekoizleen sustapenerako 2022ko bonoen kanpaina hau onartzea erabaki du.

VII.- ETXEBIZITZA ALOKAIRUAN EMANDA DUTENEI HOBARIAK O.H.Z.N.-

Hirilurren Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen udal ordenantza fiskalak %50eko hobaria aurreikusten du alokatuta dauden etxebizitzentzat.

Hau honela izanda, eta ogasun batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, etxebizitza alokatuta edukitzeagatik 2021eko ekitaldiari dagozkion hobia-riak eskatzeko maiatzaren 2tik 20a, biak barne, arteko epea irekitzea erabaki du.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeita zortzi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akla jaso eta ziur0tutzen dudalarik.

